

PROZEDURA: KONTRATAZIO PUBLIKOA

ARAUDI ERREGULATZAILEA

[9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten duena Espainiako ordenamendu juridikora. \(boe.eu\)](#)

<u>ELKARRERAGINGARRITASUN-ZERBITZUA</u>	<u>GAIKUNTZA</u>	<u>ARTIKULUA</u>
002 Nortasuna egiaztatzea	legez (39/2015)	9.1 art.
015 GSDOri ordaindu beharrekoak egunean izatea	legez	71.1.d art.
064 Zerga-betebeharrak egunean izatea – foru-ogasunak	legez	71.1.d art.
017 Ekonomia-jardueren gaineko zergaren epigrafeak (bestelakoak) – foru-ogasunak	adostasuna	APAPEren eranskina, 89.1 eta 90.1 art.

Prozedura irekiko zerbitzu-kontratuaren pleguak erantsiko dira, elkarreragingarritasunera irizpide hauen arabera egokituta:

1.- Pleguetan, GSDOrekin eta foru-ogasunekin egunean egon beharra egiaztatzeko nahitaezkotasuna aipatzen den paragrafoan, hau sartu behar da:

.....(e)ko Udalak/entitateak ziurtagiriak eskuratuko ditu, dauden datuetarako bitartekaritza-plataformen bidez, jakitearren enpresa lizitatzailleek egunean dauzkaten zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak. Arrazoi teknikoak direla eta, ezinezkoa bada elkarreragingarritasunaz baliatzea, udalak errekerimendua egin dezake dokumentu horiek aurkez ditzaten.

2.- Pleguetan, ekonomia-jardueren gaineko zergaren epigrafeko alta egiaztatzeko nahitaezkotasuna aipatzen den paragrafoan, hau sartu behar da:

Enpresa lizitatzailleek adostasun espresua adierazi badute administrazioak ekonomia-jardueren gaineko zergari buruzko datuak eskura ditzan,(e)ko Udalak/entitateak kasuan kasuko ogasunek eman beharreko ziurtagiriak eskuratuko ditu, dauden datuetarako bitartekaritza-plataformen bidez. Arrazoi teknikoak direla eta, ezinezkoa bada elkarreragingarritasunaz baliatzea, udalak errekerimendua egin dezake dokumentu horiek aurkez ditzaten.

Horretaz gain, eranskinetako batean (proposamen ekonomikoan) edo erantzukizunpeko adierazpenetan, puntu hau sartu behar da:

EKONOMIA-JARDUEREN GAINEKO ZERGARI BURUZKO DATUAK IRISPIDEAN IZATEKO BAIMENA

☐ BAI ☐ EZ

BAIMENA ematen diot(e)ko Udalari/entitateari prozedura honetan, bitarteko elektronikoen bidez, kasuan kasuko ogasunek ekonomia-jardueren gaineko zerga dela-eta eman beharreko ziurtagiriak eskura ditzan.